

BASAURIKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



2.1. FASEA: TOKIKO EKINTZA PLANA: ILDO ESTRATEGIKOAK, PROGRAMAK ETA EKINTZAK.

2013ko martxoa

AURKIBIDEA

<u>1.- ZER DA TOKIKO EKINTZA PLANA?</u>	1
Definizioa.....	1
Egitura.....	1
<u>2.- ILDO ESTRATEGIKOAK</u>	3
<u>3.- EKINTZA PLANAREN GARAPENA</u>	5
<u>4.- TOKIKO EKINTZA PLANAREN EBALUAZIOA</u>	15
Nola egingo da ebaluazioa?	15

1. ZER DA TOKIKO EKINTZA PLANA?

Definizioa

Tokiko Ekintza Plana (aurrerantzean TEP) ekintza konkretu, definitu eta mugatuen multzoa da. Ekintza horiek epe jakin baten barruan, lehenetasun-maila definitu batekin eta, beharrezkoa izanez gero, aldizka gauzatzeko konpromisoa hartu dugu.


Noiz arte: 2012tik 2020ra bitartean, horrela Alkateen Hitzarmenaren baitan prestatutako Energia Iraunkorrerako Ekintza Planarekin koordinatu ahal izateko. Plan biek ere ekintza komunak dituzte energia berriztagarriei, energia-eraginkortasunari, hondakinei, urari eta mugikortasunaren kudeaketari dagokienean.

Ebaluazioa: bi urterik behin egingo da Energia Iraunkorrerako Ekintza Planarenarekin batera. Ebaluazio hori egiteko adierazleak kalkulatu dira eta ekintzek duten aurrerapen-maila identifikatu da.

Egitura

EKINTZAK helburu komuna duten PROGRAMETAN biltzen dira. Era berean, programak ILDO ESTRATEGIKO orokorretan biltzen dira. Ildo horiek, labur-labur esanda, erantzun beharreko ekintza-eremua zein den jakiteko aukera ematen diete tartean diren erakundeei.

Modu grafikoan azaltzeko:



2. ILDO ESTRATEGIKOAK

Ildo estrategikoak honako faktoreak aztertu ondoren sortzen dira:

- Iraunkortasun Kontseiluak egindako ekarpenak.
- Diagnostikoaren ondorio nagusiak. Horiek ingurumen-, ekonomia-, gizarte- edo kudeaketa-arloan sustatu edo zuzendu beharreko alderdiak zeintzuk diren jakiteko aukera ematen dute (aukerak edo etorkizunerako mehatxuak izan daitezkeelako).

Premisa horiek oinarri hartuta, honako hauek dira ildo estrategikoak:

1. **Tokiko Agenda 21ean herritarren eta gizarte-eragileen partaidetza eta inplikazioa sustatzea, erantzunkidetasuna oinarri hartuta.**
2. **Lehiakorra eta dibertsifikatua den eta ingurumena errespetatzen duen garapen ekonomikoa sustatzea.**
3. **Klima-aldaketaren aurka borrokatzea.**
4. **Lurzoruaren, uraren, airearen eta ingurune naturalaren kalitatea hobetzea.**
5. **Hondakin gutxiago sortzea eta horiek ahalik eta gehien berrerabiltzea eta birziklatzea.**
6. **Antolamenduari eta hirigintza-jarduerari iraunkortasun-irizpideak aplikatzea.**
7. **Udal-administrazioak ingurumenaren inguruan egiten duen kudeaketan aurrerapausoak ematea.**
8. **Motorizatu gabeko garraiobideetan eta garraio kolektiboetan oinarritutako mugikortasun-eredu berria sustatzea.**

Ildo horietako bakoitza Aalborgeko konpromisoari loturiko hainbat programak osatzen dute, eta azken horiek jarraitu beharreko helburu zehatzak ezartzen dituzte.

3. EKINTZA PLANAREN GARAPENA

Jarraian taula ezberdinak aurkeztuko ditugu. Taula bakoitza ildo estrategiko bati dagokio eta bertan ildo hori osatzen duten programak eta ekintzak laburbiltzen dira, eta baita bakoitzari loturiko Aalborgeko konpromisoak ere.

Gainera, programa bakoitzak besteekiko duen lehentasun-maila ere adierazten da: **HANDIA**, **ERTAINA** edo **TXIKIA**. Lehentasunak ezartzeko orduan, honako irizpideak erabili dira:

- Iraunkortasun Kontseiluak emandako lehentasun-maila eta egiten dituen ekarpenen kopurua (programa batek beste batek baino ekarpen gehiago lortzen baditu, hori lehentasunezkoa delako gertatzen dela ulertzen da).
- Eskuragarri dagoen informazio teknikoa.
- Tokiko Agenda 21i loturiko bestelako planak edo programak egotea, hala nola, Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana.

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN-MAILA	EKINTZA
1. Tokiko Agenda 21ean herritarren eta gizarte-eragileen partaidetza eta inplikazioa sustatzea, erantzunkidetasuna oinarri hartuta.	Ikastetxeetan ingurumenaren inguruko hezkuntza-programak garatzen jarraitzea, beti ere irakasleekin elkarlanean eta etengabe hobetzeko filosofiari jarraiki.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolako Agenda 21 eta Iraunkortasunerako Hezkuntza-programa mantentzea eta indartzea. • Ikastetxeekiko komunikazioa hobetzea.
	Ingurumenaren gaineko informazioa eskuragarri egitea eta herritarren eta gainerako gizarte-eragileen erantzunkidetasuna sustatzea.	ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrei zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak garatzea ingurumenaren gainean.
	Herritarrek, banan-banan zein elkarte bidez, Basauriko Tokiko Agenda 21 Ekintza Planaren garapenean duten inplikazioa mantentzea.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Iraunkortasun Kontseilua eta ingurumengaietarako bestelako partaidetza-motak dinamizatzea. • Iraunkortasun Kontseilua aldizka egitea, gutxieneko aldizkakotasuna mantenduta.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 1. GOBERNATZEKO MODUAK

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN-MAILA	EKINTZA
2: Lehiakorra eta dibertsifikatua den eta ingurumena errespetatzen duen garapen ekonomikoa sustatzea.	Ingurumena kontuan hartzea jarduera ekonomikoak sustatzerakoan, bereziki ETE eta merkatari txikien kasuan.	ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumenaren inguruko aholkularitza-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-mekanismoak ezartzea zerbitzuen sektorerako.
	Enpresak ingurumenari buruzko araudira egokitzeko prozesua sustatzea eta erraztea.	ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresak ingurumenari buruzko araudira egokitzeko prozesua sustatzea eta erraztea. • Enpresei aldizkako ingurumen-ikuskapena egiteko Plana abian jartzea.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 8. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN-MAILA	EKINTZA
3: Klima-aldaketaren aurka borrokatzea.	Sektore zehaztugabeetan eraginkortasun energetikoa sustatzea alkateen arteko hitzarmenean hartutako konpromisoak bete ahal izateko.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> Udal-, etxebizitza- eta zerbitzu-sektoreetako eraginkortasun energetikoa areagotzea.
	Energia berriztagarrien erabilera sustatzea alkateen arteko hitzarmenean hartutako konpromisoak bete ahal izateko.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> Udal-, etxebizitza- eta zerbitzu-sektoreetan energia berriztagarrien ekoizpena areagotzea.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 10. TOKIAN TOKIKOTIK MUNDU GLOBALERA

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN -MAILA	EKINTZA
4: Lurzoruaren, uraren, airearen eta ingurune naturalaren kalitatea hobetzea.	Zarata pairatzen duten herritarren portzentajea murriztea prebentzio- eta zuzenketa-ekintzen bidez.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Bost urtez behin Zarataren Udal Mapa berrikustea. • Kalitate akustikoaren xedeak gainditzen dituzten inguruak identifikatzea eta hobekuntza-neurriak abian jartzea. • Zaratari buruzko informazioa herritarren esku jartzea formatu irisgarrian.
	Uraren kontsumoa murriztea berrerabilpena sustatuta eta haren kalitatea hobetzea.	TXIKIA	<ul style="list-style-type: none"> • Etxebizitzetako eta zerbitzuen sektoreko ur-kontsumoa murriztea sentsibilizazio-kanpainen eta prestakuntzaren bitartez. • Uraren berrerabilpenaren alde egitea. • Saneamendu-sarea bitan banatzea. • Etxebizitzen eta industrialdeen % 100 hodi biltzailera konektatzea. • Zaintza mantentzea kontrolatu gabeko isuriak ekiditeko. • Hornidura-sarea kontrolatzeko sistema automatikoa ezartzea egon daitezkeen galerak denbora errealean identifikatu ahal izateko. • Udaleko ur-kontsumoa kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko sistema ezartzea. • Udalaren eraikinetako eta ekipamenduetako ur-kontsumoaren eraginkortasuna areagotuko duten ura aurrezteko sistemak instalatzea.
	Lurzorua erabilera berrietarako berrerabiltea sustatzea kutsatutako eremuak leheneratuta.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Industrialdeetako lurzorua kalitateari buruzko ikerketak egitea eta zabortege izandakoak leheneratzea sustatzea.
	Apurka-apurka aireak kalitate ona duen egunen kopurua areagotzea.	TXIKIA	<ul style="list-style-type: none"> • Udalerriko eremu ezberdinetan aireak duen kalitatea nolakoa den jakitea.

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN -MAILA	EKINTZA
	Udalerriko bioaniztasuna eta eremu naturalak babestea, horien arrazoizko erabilera egin dadin balioa emanda.	ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Espezie inbaditzaileak saihesteko eta kontrolatzeko jarduerak egitea. • Ibaiertzak lehenera ekartzea. • Aldundiaren "ingurune berdearekin" koordinatutako bidexkak egokitzea. • Basoak leheneratzen jarraitzea.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 3. NATUR BALIABIDE KOMUNAK

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN-MAILA	EKINTZA
5: Hondakin gutxiago sortzea eta horiek ahalik eta gehien berrerabiltzea eta birziklatzea.	Etxeetan eta industrialdeetan sortzen diren hondakinak murriztea.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeetan sortzen diren hondakinak murriztea. • Postontzietan uzten den publizitateak eragiten dituen hondakinak murrizteko neurriak ezartzea. • Industriak sortzen dituen hondakinak egonkortzea / murriztea.
	Hiri-hondakinak berrerabiltzea eta birziklatzea erraztea, frakzio berriei (organikoa) eta sortaile handiei arreta berezia jarrita.	ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Konposta egiteko frakzio organikoa (5. edukiontzia) jasotzeko bitartekoak ezartzea. • Saltokietako eta zerbitzu-establezimenduetako (ostalaritza, egoitzak, etab.) soberakinak aprobetxatzea. • Ikastetxeetan materiala berrerabiltzea. • Dibulgazio / Partaidetza esperientziak eta tailerrak egitea berrerabilpenaren eta birziklapenaren inguruan. • Truke-azoka.
	Enpresa txikiei hondakinen kudeaketa hobetzen laguntzea (hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak).	TXIKIA	<ul style="list-style-type: none"> • Sortzaile txikien erregistroa egunean jartzea sustatzea. • Hondakinen sorrera minimizatzea eta azpiproduktuak sustatzea. • Kudeaketa hobetzea eta kostuak murriztea.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 4. KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN-MAILA	EKINTZA
6: Antolamenduari eta hirigintza-jarduerari iraunkortasun-irizpideak aplikatzea.	Iraunkortasun-irizpideak sartzea HAPOn eta plangintzarako gainerako tresnetan (ordenantzak, plan partzialak eta bereziak, etab.).	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Plangintzan eta hura garatzeko tresnetan iraunkortasun-irizpideak sartzea.
	Hirigintza-jardueran iraunkortasun-irizpideak sartzea, bereziki eraikinetan eta Udalak sustatutako proiektuetan.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiri-espazioko irisgarritasuna hobetzea.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 5. HIRIGINTZA DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN-MAILA	EKINTZA
7: Udal-administrazioak ingurumenaren inguruan egiten duen kudeaketan aurrerapausoak ematea.	Erosketa eta kontratazio publiko berdeak sustatzea.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> Erosketa publiko berdea sustatzea. Kontratazio publiko berdea sustatzea.
	Ingurumena Udalaren arlo guztietako eguneroko jardueran kontuan har dadin erraztea.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> Eguneroko jardueren garapena hobetzea ingurumenaren ikuspuntuari dagokionean, posible den kasuetan behintzat (adibidez, ekitaldien antolakuntzan, fiskalitatean, ibilgailuen flota, etab.). Udalan mugikortasun-plan iraunkor bat prestatzea eta ezartzea.
	Udaleko langileek ingurumenaren gaineko prestakuntza jaso dezaten sustatzea.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumenaren gaineko prestakuntza sartzeko udalaren prestakuntza-planean (dela orokorra, dela talde jakin batzuen eskarien arabera). Ingurumenaren gainean garatzen diren jardueri buruzko barne-komunikazioa hobetzea.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 2. IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO UDAL-KUDEAKETA

ILDO ESTRATEGIKOA	PROGRAMA	LEHENTASUN-MAILA	EKINTZA
8. Motorizatu gabeko garraiobideetan eta garraio kolektiboetan oinarritutako mugikortasun-eredu berria sustatzea.	Herri barruko joan-etorri gehienak oinez edo bizikletaz egin daitezen beharrezkoak diren bitartekoak jartzea, pertsona guztientzako irisgarritasuna bermatzeko irizpideak kontuan hartuta.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrak hirigune barruan ibilgailu pribatua ez erabiltzeko konbentzitzea. • Joan-etorriak bitarteko iraunkorren bidez, hau da, oinez edo bizikletaz egin daitezen erraztea. • Urbi eta Ariz artean oinezkoentzako pasabide bat eraikitzea, auzo horretako biztanleei ekipamenduetara errazago iristeko aukera emateko. • Garapen berriak proiektatzerakoan mugikortasun iraunkorra kontuan hartzea.
	Garraio publikoaren eta motorizatu gabeko garraiobideen erabilera erraztea.	HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> • Garraio publikoa sustatzea. • Ondoko udalerriekin bidegorri bidez lotzea. • RENFE eta BizkaiBus arteko bateragarritasuna sustatzea tarifa-integrazioaren bidez. • Sidenorreko ibaiertzeko ibilbidea Arrigorriagarekin lotzea.
	Salgaien mugikortasuna eta garraio astunaren zirkulazioa erraztea.	ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Lehentasunezko ibilbideak ezartzea salgaien sartu-irtenerako. • Industrialdeetara iristeko eta horietatik irteteko mugikortasuna erraztea.
	Udalerrian ibilgailu eta erregai garbiak erabiltzeko aukera erraztea.	ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilgailu garbien (bereziki ibilgailu elektrikoek) eta bioerregaien erabilera areagotzea.

HONI LOTURIKO AALBORGEKO KONPROMISOA: 6. MUGIKORTASUNA HOBETZEA ETA ZIRKULAZIOA MURRIZTEA

4. TOKIKO EKINTZA PLANAREN EBALUAZIOA

Nola egingo da ebaluazioa?

Tokiko Ekintza Planaren ebaluazioa bi urtez behin egingo da honako faktore hauek kontuan hartuta:

- **Ekintzak zenbateraino bete diren:** Udalsarea 21 deritzonari atxikitako udalerrien Tokiko Ekintza Planen jarraipena eta ebaluazioa egiteko garatutako Mugi21 tresna informatikoa oinarri hartuta egingo da. Aplikazio horrek ekintza bakoitzaren egikaritzearen balorazio-eskala zehazten du bakoitzari zenbaki bidezko balio bat emanda, horrela interpretatu ahal izateko. Ekintza bakoitza zenbateraino bete den jakiteko honakoak hartzen dira kontuan:
 - Azterketa bibliografikoaren bidez bildutako informazioa.
 - Erakunde ezberdinei egindako kontsultak.
 - Udaleko teknikariek izandako elkarrizketak.
- **Iraunkortasun-adierazleen emaitza:** Iraunkortasun-adierazleak garapen iraunkorraren inguruan non gauden, zein bidetatik goazen eta gure xedea lortzetik zenbatera gauden ulertzen laguntzen diguten tresnak dira. Laburbilduz, udalerriak Tokiko Ekintza Planean jasotako ekintzei nola erantzuten dien jakiteko aukera ematen dute.

Basaurik baditu I. Tokiko Ekintza Planari loturiko iraunkortasun-adierazleak. TEP berria idatzita dagoen une honetan, baina, adierazle horiek berrikusteko premia ikusi dugu, ekintza guztiak jasotzen direla bermatzeko.

Jarraian bi urtez behin kalkulatu den adierazle-sistema aurkeztuko dugu (bi urtez behin aztertuko da, baita ere, TEPeke ekintzen aurrerapen-maila).

01. ADIERAZLEA: Uraren kontsumoa.

02. ADIERAZLEA: Energiaren kontsumoa.

03. ADIERAZLEA: Energia berriztagarrien erabilera.

04. ADIERAZLEA: Berotegi efektudun gasak isurtzea.

05. ADIERAZLEA: Hondakinak sortzea eta kudeatzea.

06. ADIERAZLEA: Uretara eginiko isuriak.

07. ADIERAZLEA: Jarduera ekonomikoak iraunkortasuna lortzeko xedez kudeatzea.

08. ADIERAZLEA: Airearen kalitatea.

09. ADIERAZLEA: Hiriko zarata.

10. ADIERAZLEA: Eremu publiko irekiak eta zerbitzuak eskuragarri izatea.

11. ADIERAZLEA: Ingurune naturala leheneratzea.

12. ADIERAZLEA: Ingurumenaren gaineko hezkuntza eta sentsibilizazioa.

13. ADIERAZLEA: Automobil-parkea.

14. ADIERAZLEA: Tokiko mugikortasuna eta bidaiarien garraioa.

15. ADIERAZLEA: Lurzoruaren erabilera iraunkorra.

16. ADIERAZLEA: Herritarren partaidetza.

17. ADIERAZLEA: Ingurumenaren kudeaketa administrazioan.

18. ADIERAZLEA: Euskara jakitea.

19. ADIERAZLEA: Langabezia-tasa.

20. ADIERAZLEA: Pobrezia eta gizarte-bazterkeria.